

EUSKALDUNAK ETA ITSASOA

ARRANTZA

Euskaldunen eta itsasoaren arteko harremana aztertzean, ezinbestekoa da arrantzak izan duen garrantzia azpimarratzea, bai jarduera ekonomikoan, baita euskaldunen identitate kulturealean ere (dantzak, kirolak, gastronomia...). Historian zehar, arrantza oso garrantzi handiko ekonomia-jarduera izan da euskal kostaldean, eta betidanik euskaldunok arrain-kontsumitzaile handiak izan gara.

Erdi Arotik, euskal lurraldeetan bi arrantza mota egiten ziren: ibaiko arrantza eta itsasokoa. Ibai eta erreketako arrantza zegoen. Amuz zein sarez arrantzatzen zen, baita urak kare bidez kutsatuz ere. Errekako espezie estimatuenak izokina, aingira, gaizkata eta kolaka ziren.

Baina Behe Erdi Aroan indarra hartu zuen itsasoko arrantzak, ibaietakoak baino askoz jende gehiago enplegatzen baitzuen. Lehenago, XI. mendean, itsas arrantza-jarduerak oso urriak izan ziren euskal kostaldean. XII.-XIII. mendeetatik aurrera, aldiz, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdiko kostaldea indartu egin zen. Hiribilduak fundatzeak bultzada ekonomikoa eman zien kostaldeko hainbat guneri, besteak beste, Portugalete, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Zumaia, Getaria, Orio, Donostia, Hondarribia, Biarritz eta Baionari. Euskal arrantzaleek espezie asko harrapatzen zituzten, hala nola sardina, bisigua, legatza, antxoa, itsas aingira eta meroa.

Aro Modernoan, euskaldunak kostaldetik hurbil aritzen ziren. Eta XII. mendetik aurrera nahiko arrunta zen balearen ehiza Bizkaiko golkoan. Harrapaketa horien ondorioz, baleak gutxitzen edo urruntzen joan ziren heinean, arrantzaleek ere kostaldetik urrundu egin behar izan zuten. Arrantza hura iparraldeko itsasoetara zuzendu zen: Islandia, Groenlandia eta Ternua aldera.

Itsasoko arrantzan, bakailaoa eta balea etekin handiena eskaintzen zuten jarduerak ziren, baina ez bakarrik. Gipuzkoan, Bizkaian eta Lapurdin beste arrain batzuk ere harrapatzen jarraitzen zuten, besteak beste, legatza, itsas aingira eta bisigua.

BALEAREN EHIZA

Balearen ehizak leku berezia du euskaldunen historian, eta arrasto garrantzitsua utzi du gure kulturean. Euskal baleazaleak laster nabarmendu ziren XIV. eta XV. mendeetan. Zalantzarik gabe, jarduera honetan onenak izan ziren garai hartan.

Balea gure kostaldean antzina ohikoa zen ugaztuna da. Zehazki, Eubalena Glacialis edo euskal balea motakoak Bizkaiko golkoa zeharkatzen zuen migrazioetan. Zetazeo horrek 15 metroko luzera eta 60 tona inguruko pisua izan dezake.

Haren ehizak irabazi handiak ematen zituen, animalia guztia aprobetxatzen baitzen: koipea argiztapenerako olio bihurtzen zen; haragia gatzatu eta saldu egiten zen; bestalde, hezurra eraikuntzan altzariak eta apaingarriak egiteko erabiltzen ziren.

Balearen ehiza Bizkaiko golkoaren aldean hasi zen, eta garai hartan baxurako arrantzan aritzen ziren nabigatzaile eta arrantzaleen kofradiek antolatu eta arautzen zuten.

Bistaratzen zituztenean edo talaiariak abisu ematean, arrantzaleak zetazeoak harrapatzea irteten ziren. Talaiaria kontraturiko zaindaria izaten zen. Altuera jakin batean eta portutik hurbil kokatuta egoten zen. Talaiariena oso kargu garrantzitsua zen, eta harrapakinaren parte bat eramaten zuen.

Behin animalia bistaratuta, 5 marinel, lemazaina eta arpoilaria igotzen ziren txalupa bakoitzera; haien artean lehia gogorra hasten zen, animalia arpoitzen zuen lehenak pribilegio batzuk lortzen baitzituen.

Animalia soka bati lotutako arpoi baten bidez harrapatzen zen. Arpoia sartu ondoren, animalia alde batetik bestera mugitzen zen eta uretan hondoratzen zen behin eta berriz, askatzeko asmoz. Egoera oso arriskutsua zen; izan ere, ontziak oso hauskorak ziren zetazeoaren tainarekin eta indarrarekin konparatuta.

Behin hilda, ugaztuna portura eramaten zuten eta enkantean saltzen zen.

XIV. eta XV. mendeetan, hainbeste balea harrapatu ziren, non Bizkaiko golkotik desagertu baitziren. Egoera horren aurrean, XVI. mendetik aurrera, euskal baleazaleak Atlantiko iparraldeko kostaldera joan ziren (Ternua, Islandia eta Groenlandia). Une hartan, jarduera horretan aritzeko konpainiak sortu ziren, horrelako espedizio luzeak egitea zailagoa zelako eta inbertsio handiagoa behar zutelako.

Euskal baleontzien presentzia oso garrantzitsua izan zen Ternuan. Itsasgizon euskaldunek, baleak harrapatzeaz gain, udako kanpamentuak eta lanerako lantegiak antolatu zituzten Ternua uhartean, baleatik eratorritako produktuak kontsumorako eta merkaturatzeko prestatzearen.

Eremu horretan aurkitu diren itsasontzien eta kanpamentuen arkeologia-aztarnei esker, euskaldunek Ternuan egiten zuten eguneroko bizitzaren berri izan dugu. Leku horretako toponimiari buruzko azterketek euskaldunek Ternuan izandako presentziaren berri ematen digute; adibidez, uharteko hiri baten izena Port-aux-Basques da, euskaldunen portua, alegia.

MERKATARITZA

Aro Modernoan bi merkataritza-bide nagusi zeuden: Asia eta Amerikako merkataritza-bidea eta Europa iparraldekoa. Azken horretan ingelesak eta herbeheretarrak nagusi ziren arren, euskaldunek garrantzia zuten haien kokapen geografikoagatik. Izan ere, Iberiar penintsularen eta Europako kontinentearen artean estrategikoki kokatuta zeuden (euskaldunak) eta merkataritza-harreman nagusiak itsasoz eta euskal lurraldeetatik barrena egiten ziren.

Horrela, garai honetan euskal merkataritzak oparotasun-aldia bizi izan zuen.

Bizkaiko portuek eta batez ere Bilbokoak Erdi Aroaren amaieran Gaztelako artilearen esportazioaren ia monopolio osoa lortu zuten. Bertatik garraiatzen zen artilea Flandriara. 1511n Bilboko Kotsulatua sortu zen eta hiru mendetan zehar erakunde eraginkorra izan zen. Kotsulatuak merkataritza-jarduera antolatzen eta arautzen zuen, eta, horri esker, Bilbo Kantauri itsasoko porturik garrantzitsuena bihurtu zen. Bilboko portuaren beste esportazio nagusia burdinarena zen, eta batez ere Londresera, Brujasera, Anberesera eta Amsterdamera esportatzen zen.

XVII. mendean Europa osoan ekonomiak krisialdi sakona izan zuen. Hala ere, Bilboko portuak bere hazkundera mantentzea lortu zuen. Garai horretan, Bilboko portua Ingalaterrako eta Herbehereetako merkataritzako itsas konpainien gogokoena izan zen, burdina, artilea eta merkataritza-itsasontzien flota kontrolatzen zituelako.

Gipuzkoan, aldiz, bertako burgesia eta Donostiakoa bereziki, beren negozioak Amerikako kolonietara zabaltzen saiatu ziren. Horrela, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia sortu zuten 1728. urtean. Donostian jarri zuten egoitza eta erakunde honek merkataritzan eragin handia izan zuen. Haren helburu nagusia Venezuelako kakaoaren eta tabakoaren merkaturatzea kontrolatzea zen, eta Gipuzkoako ekonomiaren suspertze prozesuan eragin handia izan zuen.

Garai hartan, Espainiako eta Amerikako kolonien arteko merkataritza guztia Cadiztik pasatzen bazen ere, konpainia honek ez zuen handik pasatzeko beharrik. Horrela, Pasaiaren eta Venezuelaren arteko merkataritza zuzena izateko pribilegioa lortu zuen.

Konpainiaren merkataritza-tratua honako truke honetan oinarritzen zen:

- Joanaldiko bidaietan, Pasaiako portutik ateratzen ziren itsasontziek burdinazko produktuak (iltzeak, aizkorak, goldeak, erremintak...), Andaluziako nekazaritza-produktuak (olioak, olibak, ozpina, edari biziak) eta Frantziako ardoak, edari alkoholduak eta irinak garraiatzen zituzten.
- Caracastik bueltan, berriz, gehien ekartzen zuten produktua eta garrantzitsuena kakaoa zen, baina ez zen bakarra, kafea, azukrea, kotoia, tabakoa eta landutako larruak ere ekartzen baitzituzten, gehienetan Herbehereetara bidaltzeko.

Hasieran, konpainia oso errentagarria izan zen, baina garrantzia galdu zuen, konpainiaren egoitza Madrilera eraman zutelako (1751). Horrez gainera, gero eta irabazi gutxiago lortzen zituzten ingeles konpetentzia handia baitzen. 1785ean desegin zen konpainia.

NABIGATZAILE FAMATUAK

Euskaldunek eta itsasoak oso harreman estua izan dute. Historiaurretik gaur egun arte euskaldunak itsasotik eta itsasoan bizi izan dira. Arrantza, merkataritza eta itsas garraioa, itsasoko gerra... Jarduera horiek izan dira hainbat belaunalditako euskaldunen bizimodua.

Arrantzaleak, baleazaleak, armadoreak, militarrek, piratak eta kortsarioak gure historiaren parte dira. Hona hemen horietako batzuk.

Katalina Erauso Pérez de Galarraga

Moja, soldadua eta idazlea (Donostia, 1585 - Cuitlaxtla, Mexiko, 1650). Moja Alfereza esaten zioten.

Nabigatzaile erabatekoa ez izan arren, Ameriketara bidaiatu zuen Atlantikoa zeharkatuz.

Bere garaian ohikoa zen bezala, lau urterekin komentu batean sartu zen, baina bere izaera ez zen batere egokia erlijio-bizitzarako eta hamabost urterekin ihes egin zuen komentutik. Gizonezkoen jantziekin eta izenarekin bizi izan zen urte batzuetan Espainian, eta 1603. urtean Amerikara abiatu zen.

Amerikan hainbat lanetan ibili eta gero, armadan sartu zen eta indiarren kontrako borroketan nabarmendu zen. Bestalde, bere joera erasotzaileagatik arazo larriak eduki zituen. Horren ondorioz, kartzelatua izan zen, eta azkenik heriotza zigorra ezarri zioten. Zigor hori saihesteko asmoarekin, emakumea zela aitortu zuen.

Handik aurrera ospe handia lortu zuen; erregeak zein Aita Santuak harrera egin zioten eta bere memoriak idatzi zituen.

Hainbat eleberritan eta pelikulatan kontatu da bere bizitza.

Juana Larando

Kortsario jardundako emakumea (Donostia, XVI. mendea).

Emakumeak beti egon dira itsasoko lanekin lotuta, baina beren zereginak normalean lehorrean egin dituzte: saregileak, batelariak, kargatzaileak... izan dira. Emakume batzuek, gainera, kortsario-jardueretan parte hartu zuten. Juana Larando izan zen horietako bat.

Emakume alargun hau ostatu baten jabe zen eta, horrez gain, patatxe baten zati bat zuen beste bazkide batzuekin batera. Hura kortsarioen ontzi bat zen, erresumako etsaien ontziak arpilatzen zituena. Hala, bera inoiz ontziratu ez bazen ere, kortsario-eraso bakoitzaren etekinen zati bat jasotzen zuen.

Juan Sebastian Elkano

Esploratzailea eta itsasgizona (Getaria, 1487 - Ozeano Barea, 1526) Munduaren inguruko lehen itzulia egin zuen marinela.

Gaztetatik arrantza- eta merkataritza-ontzietan nabigatu zuen; espedizio militarretan ere parte hartu zuen. Hau da, eskarmentu handiko nabigatzailea zen.

Fernando de Magallanes itsasgizon portugaldarra espedizio bat prestatzen ari zen mendebaldetik Asiarako ibilbide bat aurkitzeko; modu horretan, ez zen beharrezkoa izango une hartan portugaldarren esku zegoen Afrika inguratzea. Espedizioa 1959ko abuztuan abiatu zuen Sevillatik 5 ontzirekin. Elkano Concepción itsasontzian zihoan.

Espedizioa zailtasunez eta arazoz beteta egon zen: janari falta, indigenekin liskarrak, hondoratzeak eta matxinadak, besteak beste. Espainiatik irten eta urtebetera, espedizioak Atlantikoaren eta Ozeano Barearen artean pasabide bat aurkitu zuen, hau da, egun "Magallaesko itsasartea" esaten diotena.

Espediziokideek Moluka uharteetara iristea lortu zuten, bidaiaren lehen helburua, espezie preziatuak aurkitu zitezkeen lurak baitziren. Ordurako, ordea, Magallanes hila zen, eta espedizioak zenbait ontzi galduak zituen. Espainiatik atera ziren ontzi guztietatik soilik Victoria ontziak, Elkano kapitain zuenak, ekin zion Europaranzko bidaiari. 1522an, munduari lehen itzulia egin ondoren, Elkano eta beste 17 marinel Sevillara iritsi ziren.

Andrés Urdaneta

Kosmografoa, apaiza, esploratzailea eta marinela (Ordizia, Gipuzkoa, 1508 - Mexiko, 1568). Orduko merkataritzarako berebiziko garrantzia zuen Itzulbidaia (Urdaneta bidea) aurkitu zuen, hau da, Ozeano Barea zeharkatuz Filipinetatik Mexikora itzultzeko ibilbidea.

Bi espediziotan hartu zuen parte. Lehenengoa, 1525ean García Jofre de Loaisak Moluketara antolatutako espedizioa izan zen. 17 urte zituen eta laguntzaile gisa ontziratu zen Juan Sebastian Elkano getariarrearekin batera. Bidaia luzea eta gogorra izan zen. Bukatzean, Urdanetak egindako bidaiaren memoria eta mapa zehatzak eman zizkion erregeari.

Bigarren espedizioa garrantzitsuena izan zen. Helburua Ozeano Barea zeharkatuz Asiatik Mexikora itzultzeko bidea aurkitzea zen; izan ere, Filipinak kontrolatzeko eta Txinarekin merkataritza-zubi bat sortzeko erabat beharrezkoa zen ibilbide hura. Ordurako, hainbat espediziok porrot egin zuten saiakera hartan. Arrakasta lortu zuen espedizioaren kapitaina Miguel Lopez Legazpi izan zen eta Andres Urdanetak parte hartu zuen bertan. Bidaiaren lehen zatia, Mexikotik Filipinetarakoa, oso ezaguna zen. Hala ere, bidaiaren bigarren zatia, hau da, Ozeano Baretik Mexikorako itzulerako bidaia Urdanetaren lorpena izan zen, Urdanetak geografiaz eta nabigazioaz zeuzkan ezagutzei esker 4 hilabeteren buruan Acapulcora iristea lortu baitzuten.

Étienne Pellot Aspikoeta

XVIII. mendeko Lapurdiko kortsarioa (Hendaia, 1756 - Hendaia, 1856). Ingeles eta espainiar armadetako ontzietan eraso ziren.

1778an hasi zuen kortsario ibilbidea, eta ingelesten aurkako espedizioetan parte hartu. Urte batzuk geroago, Frantziako Errege Itsas Armadarekin bat egin zuen, eta Espainiako flotaren aurkako guduetan parte hartu zuen Amerikako kostaldeetan.

Karrera "ofiziala" ez zitzaion interesatzen eta 1796an kortsarioen itsasontzi baten kapitaina bihurtu zen, 40 euskal itsasgizon izanik bere agintepaan. Hurrengo urteetan ingelesten aurkako hamaika eraso egin zituen. 1812an erretiratu zen, aberastu ondoren.

Behin baino gehiagotan preso hartu eta espetxeratu zuten arren, beti lortu zuen ihes egitea bere azkartasunari esker, adibidez, kargu militar edo erromes gisa mozorrotuta.

José Domingo de Mazarredo

Bizkaiako marinela militarra eta zientzialaria (Bilbo, 1745 - Madril, 1812). Aurrerapen zientifikoarekin eta marinelen prestakuntzarekin konprometitutako itsasgizon bikaina izan zen.

Mazarredo 14 urterekin sartu zen Cadizko Errege Zaindarien Konpainian, irakaskuntza militarra zuzendutako erakundean alegia. Karrera militar arrakastatsua garatu zuen, eta 1798an kapitain jeneral izendatu zuten. Militar gisa itsas gudu ugarietan parte hartu zuen arrakasta handia lortuz.

Hala ere, Mazarredoren bizitzan alderdi zientifikoa izan zen nabarmenena. Bere dohainei esker, itsaso barnean latitudea eta longitudea neurtzen aditua egin zen. Are gehiago, trebetasun hori erabili zuen Espainiako eta Afrikako kostaldeko leku askoren kokapen zehatza kalkulatzeko. Bestalde, beste aurrerapen batzuk ere lortu zituen nabigazioari dagozkion eremuetan, hala nola marinelen prestakuntzan, hidrografian eta ontzigintzan. Marinelek itsasontzietan bete beharreko diziplina-arauak ere finkatu zituen.

EMAKUMEAK ETA ITSASOA

Euskal emakumeen parte hartzea itsasoko ekintzetan eta ekonomian historiako irakasgai azaldu izan dena baino askoz handiagoa izan zen. Esaterako, portuetan batelari, zirgari eta karga lanetan ibili izan ziren, baina baita sareak eta tresnak konpontzen ere. Arraina saltzen, itsasontzien eta tripulazioen kudeaketan edo armadore gisa ere jardun zuten.

Emakumeak eta itsasontziak

Itsasontzietan emakumeen presentzia oso mugatuta egon zen arren, Ameriketako kontinentearen konkistan eta kolonizazioan hainbat emakumek parte hartu zuten. Hor dugu,

esaterako, Katalina Erausoren kasua, baita XVI. mendean Ameriketara joan zen emakumeen migrazio handia ere.

Emakumeek itsasontziekin eta nabigazioarekin beste harreman bat zuten: merkataritza-nabigazioarekin eta ontzigintza-industriarekin. XVI. eta XVII. mendeetan emakumeen parte hartzea itsasoko negozioetan handia zen, armadore izateaz gain itsas merkataritza lantzen edo Ternuan arrantza egiten zuten itsasontzien jabe izan baitziren.

Emakumezko piratak eta kortsarioak

Pirateriaren historian, emakumeen presentzia aspaldiko kontua da. Itsas bandidajearen aritutako emakume gehienak XVIII. mendekoak izan baziren ere, Erdi Aroan eta Aro Modernoan dagoeneko baziren batzuk.

Euskal Herrian ez daukagu emakumezko piraten berririk, baina bai kortsario jarduneko emakume batena: Juana Larando. Kortsarioa gobernu baten baimena zuen itsaslapur edo pirata zen. Juana Larando, alargun donostiarra zen, eta, ostatu baten jabe izateaz gain, beste bazkide batzuekin batera espainiar Koroaren ontzi etsaiak harrapatzen eta sakeatzen ibili zen. Bera sekula ontziratu ez bazen ere, beti jaso izan zituen lapurretetatik zegozkion mozkinak.

Portuko lanen inguruan: batelariak, kargaketariak eta zirgariak

Emakumezkoak portuetako lanik gogorrenetan aritu ziren. Lan horien artean aipagarriak dira portu europarretan emakume batelariak egiten zituztenak, hau da, hainbat karga-lan. Horrez gain, pertsonak eta merkataritza-produktuak ertzetik ertzera eramaten zituzten. Beste zenbait eginkizunen artean, itsasontzietarako karga garraiatu eta saldu egiten zuten eta, tarteka, belaontzi handiak eta txikiak atoian eramaten zituzten arrauneko txalupekin, portuan errazago sartzeko.

Itsasoko mareak kontuan izanda, emakume horiek karga mota guztiak garraiatzen zituzten txalupa eta gabarretan. Ontzien uretaratzeetan ere ontzigileei lagun egiten zieten amarre lekuraino.

Donostiako eta Bilboko portuetan ohikoa zen emakumeak karga-lanetan aritzea. Bilboko portuan, 1860 inguruan, emakume zamatzaileak hiru lan-mota egin zitzaizkien: transakzio komertzialetako dirua eraman, itsasontzietatik lonjetara bakailaoa garraiatu eta, mineralen eta hondarraren karga bideratu.

Azkenik, portuko lanik gogorrenetakoa zirga lana zen. Gerrian larruzko uhal bati lotutako soken bidez ontzi-mota ezberdinak lehorretik tiratzea zen lan hori.

Arrantzaren inguruan

Arrantza munduan, emakumeak, sareak mantentzeaz gain, deskargan, garraioan eta arrain-salmentan aritu izan dira mendeetan zehar.

XVI. eta XVII. mendeetan, hainbat euskal portutan lan egiten zuten Ternuatik iristen zen bakailaoa hustutzen, ondoren portuko etxoletan jaso eta manipulatzeko. Lan horiek emakumeek bakarrik egiten zituzten.

“Itsasontziko andre” edo “pixonera” lana erabakigarria zen euskal portuetan.

Izen ezberdinak zituzten herrien arabera, baina, oinarrian, eginkizun berdinak zituzten: sareak konpondu, arraina garraiatu portura iristen zenean, hura salmentarako prestatu eta enkantea egin. Eskabetxe-lantegi eta gazitze- enpresetako lana ere emakumeek egiten zuten.

LAGUNTZA

Atal honetan aurkituko dituzu webgune honen inguruko zehaztasunak, menuaren azalpena, edukiaren zein jardueren antolaketa eta bestelako baliabideak. Dударik gabe, ikasteko eta trebatzeko prozesuan lagungarri egingo zaizkizu.

Ikusten duzunez, guneak hainbat atal ditu. Hona hemen bakoitzaren azalpen txikia, errazago nabigatzeko eta mugitzeko:

Goiburuko menua

- Gida didaktikoa: irakasleei zuzendutako edukien azalpen didaktiko orokorra.
- Baliabideak: gaiari buruzko liburuen zerrenda edota Interneten gaiaren gainean dauden helbide interesgarriak dituzu zerrendatuta.
- Webgunearen mapa.
- Ebaluazioa: bakarka nahiz taldean lantzeko ariketa praktikoak.
 - Batetik, eduki teorikoen inguruko test moduko 10 galdera daude.
 - Bestetik, taldean aritzeko 3 jarduera. Guztiek teknologia digital bat (IKT) garatzen dute.
- Glosategia: edukietan lantzen diren kontzeptu eta hitz nabarmenen zerrenda eta horien azalpena.
- Laguntza: webgunea ulertzeko eta bertan nabigatzeko azalpenak.
- Bilaketa: webgune honetan informazioa aurkitzeko bilatzailea.

Menu hau une oro egongo da erabiltzailearen eskura.

Erdialdeko zona

- Gunearen erdialdeko zona edukien zona da. Bertan, eduki teorikoa jasotzeko bost atal nagusi daude: Arrantza, Bailearen ehiza, Merkataritza, Nabigatzaile famatuak, eta

Emakumeak eta itsasoa. Atal bakoitzean klik eginez gero, edukien gunean murgiltzen gara, eta, hor, gaien sakondu eta kontzeptuak ikasteko aukera ematen zaigu.

- Horietako bakoitzak gaiari buruzko animaziozko ikus-entzunezko bat du. Bestalde, nabigatzaile famatuen atalak 6 nabigatzailearen biografiak jasotzen ditu; horietako bakoitza animaziozko mikrobideo batez lagunduta doa.

Webgunearen inguruan edozein zalantza sortzen bazaizu, jar zaitez gurekin harremanetan: info@mizzpi.eu

GLOSATEGIA

- **Armadore:** itsasontzia hornitu eta tripulazioa kontratatzen duen pertsona da.
- **Arrantzaleen kofradia:** arrantzaren inguruan lan egiten zuten langileak biltzen zituen elkarte zen. Horren helburu nagusia bazkideen interes ekonomikoak eta lan-interesak defendatzea zen.
- **Artile:** zuntz naturala da, batez ere ardietatik lortzen dena baina, baita beste animalia batzuetatik ere, hala nola lllamak, alpapak, bikuinak edo ahuntzak. Oihalgintzan erabiltzen da. Erdi Aroan eta Aro modernoan oso preziatua zen Gaztelako artilea. Bilbotik esportatzen zen Herbehereetara.
- **Batel:** arrantza egiteko ontzi txikia da. Batela gidatzen duenari batelari esaten zaio.
- **Bilboko Kotsulatua:** Bilbon 1511n sortu zen erakundea da. Haren helburua komertzio-jarduera arautzea eta kudeaketa hobetzea izan zen. Kotsulatuari esker, Bilboko portua Espainiako portu nagusietako bat bihurtu zen. 1886tik aurrera Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera bilakatu zen.
- **Burdina:** elementu kimikoa da (Fe sinbolo kimikoa du). Munduko bigarren metal ugariena da, eta gizakiok gehien erabiltzen dugun metala da. Izan ere, altzairua egiteko erabiltzen da eta altzairua ezinbesteko materiala da eraikinak edo ibilgailuak sortzeko.
- **Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia:** 1728an sortutako gipuzkoar merkataritza-konpainia izan zen. Monopolioa izan zuen Venezuelarekiko merkataritzan. Tabakoa, kakaoa eta beste hainbat gai ekarri zituen, eta hara hainbat produktu eta tresna esportatu. Europako merkataritza-trafikorako garrantzi handikoa izan zen. 1785ean desagertu zen.
- **Enkante:** salerosketa modu bat da. Saltzaile bakar batek bere produktuak eskaintzen dizkie erosle askori. Horiek euren artean lehiatzen dira produktua erosteko. Helburua ahalik eta salmenta-preziorik altuena lortzea da.
- **Espezia:** landare-jatorriko elikagaiak dira, landare aromatiko batzuen hazi, azal, sustrai, kimu, lore edo ibaietatik hartzen direnak. Bestelako elikagaiak ondo mantentzeko edo zaporea emateko erabiltzen dira. Espezieak, antzina, ekonomiako produkturik garestienetakoak eta baliotsuenetakoak ziren, batez ere elikagaien kontserbagarri gisa zuten garrantziagatik.
- **Kortsario:** gobernu baten baimena duen itsaslapur edo pirata da. Hau da, erregearen izenean beste itsasontziak ebasten ditu, zehazki, erregearen etsaien ontziak.
- **Kosmografia:** kosmografia unibertsoaren ezaugarriak mapa moduan deskribatzen dituen zientzia da, geografiko eta astronomiako elementuak konbinatuz.
- **Patatxe:** itsasontzi arinak ziren. Bi mastako belaontziak ziren, sakonera gutxikoak.
- **Pixonera:** portuan lan egiten zuten emakumeak ziren. Haien eginkizuna zen sareak konpontzea, arraina garraiatzea portura iristen zenean hura salmentarako prestatzea eta enkantea egitea.

- **Talaia:** ingurune zabala begiztatzeko eta zaintzeko erabiltzen den dorrea edo goragunea da. Erabilera militarra izan dute bereziki historian barrena. Euskal Herrian, aurreko mendeetan, ugari ziren baleak, arrain-sardak eta ontziak begiztatzeko dorreak.
- **Ternua:** Kanadako ekialdean dagoen uhartea da. Euskal Herriko baleazaleak Ternua eta Quebec aldean ibili ziren baleak harrapatzen, bereziki XVI. eta XVII. mendeetan.
- **Zirgari:** zirga izeneko soka luze batetik tiraka itsasertzera edo itsasadarrean gora ontziak mugitzen zituzten emakumeak ziren.

BALIABIDEAK

LOTURA INTERESGARRIAK

- Aizpurua, Martxel. "Arrantzaleen arteko bizimodua dastatzen" In: [Zientzia.eus](#). · (3. jarduera)
- "Arrantza Euskal Herrian". In: [Infogunea](#). · (3. jarduera)
- "Arrantzontziko bizimodua eta lanak". In: [Ahotsak.eus](#). · (3. jarduera)
- "Atunetako arrantza: ontziko bizimodua". In: [Ahotsak.eus](#). · (3. jarduera)
- Azkune Mendia, Iñaki "Untzigintzaren historia VI: galeratako bizimodu latza". In: [Zientzia.eus](#). · (3. jarduera)
- Azpiazu, José Antonio (2001). "Balleneros vascos en el Cantábrico". In: *Euskonews*; 113 zbk.
- "Ekonomia euskal lurraldeetan Aro Modernoan: arrantza". In: [Infogunea](#). · (Jarduera 3)
- "Erdi Aroko ekonomia-jarduerak: arrantza". In: [Infogunea](#).
- "Euskal baleazaleak". In: [hiru.com](#).
- "Euskal Herriko Baleazaleak". In: [Wikipedia](#).
- "Euskal Herriko esploratzaileak" [Kategoria]. In: [Wikipedia](#). · (1. jarduera)
- "Euskal Herriko itsaslariak" [Kategoria]. In: [Wikipedia](#). · (1. jarduera)
- "Kolondar trukaketa". In: [Wikipedia](#). · (2. jarduera)
- [Landarepedia](#). · (2. jarduera)
- "Marinelak" [Kategoria]. In: [Añamendi Eusko Entziklopedia](#). · (1. jarduera)
- "Ontzi bateko arrantzale kopurua eta bakoitzaren papera". In: [Ahotsak.eus](#). · (3. jarduera)
- Zeberio Rodríguez, Manu. "Balea-ehiza". In: [Añamendi Eusko Entziklopedia](#).

LIBURUAK

- Macías, Olga; Unsain, José María; Iza, Ana (2016) *Emakumeak eta itsasoa = Las mujeres y el mar*. Donostia: Untzi Museoa.
- Maia, Jon (2011). [Apaizac hobeto // Arqia multimedia](#).